



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

Tokieder Ikastola

Ikastetxearen kodea:

010153

Data:

2023ko ekainaren 15a





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Tokieder Ikastola D eredu ikastola publikoa da. Gasteizko Lakua auzoko Wellingtongo Dukearen kaleko 6. zenbakian kokatuta dago. Bi etapaz osatutako zentroa da, HH eta LH, 2 urtetatik aurrera 6. mailara arte, maila bakoitzean, 3 lerro dituelarik. Gela egonkor bat eta Koloretako Gela bat ere badaude.

Gure Ikastola 4 eraikinez osatuta dago, hau da, Lehen Hezkuntzako eraikina, Haur Hezkuntzako, jantokia eta "K eraikina" non 4. maila, PT gela batzuk eta Kiroldegia kokatuta dauden.

Tokieder Ikastolako familien maila sozioekonomikoa ertaina dela esan daiteke, gehiengoak familia estrukturuak izanda. Maila kulturala, berriz, anitzagoa da. Gehiengo handiaren jatorrizko hizkuntza gaztelera da. Nahiz eta etorkin kopurua txikia izan, denborarekin kopurua handitzen ari da eta horrek kultura eta hizkuntza desberdinak egotea ekartzen du.

Ikastolako ikuspegia eta baloreak Hezkuntza Proiektuan jasota ditugu:

- Gizartearen eskakizun berriak ezin ditugu alboratu, gure ikasleak gizartean bizitzeko prestatu nahi ditugu, eta hori lortzeko, irakasleriaren formazioari garrantzi handia ematen diogu eta honen barruan digitalizazio arloari.
- Ikasle asko eta anitzak ditugu. Guztiei erantzun egokia eman nahi diegunez eta talde lanaren ikasketetan sinesten dugunez, Ikastolako hezkuntza praktikan ikaskuntza kooperatiboa txertatu dugu. Metodologia horrek ikasle guztiei laguntzea ahalbidetzen du.
- Elkarbizitza eta hezkidetzak asko baloratzen ditugu eta patioaren antolaketa, kanpainak, gela egonkorreko integrazioa, tutoretza plana, harrera plana eta abar aurrera eramaten ditugu eskola giroa hobetzeko eta baloreak lantzeko.
- Irakasleen antolaketari dagokionez, Tokieder Ikastolan erabakiak demokratikoki hartzen ditugu. Koordinazioa lehenesten dugu bai zikloetan bai mailetan eta Ikastola osatzen dituzten eremu guztien partaidetza bermatzen dugu. Ikastolako erabakiak Organo Gorenak hartzen ditu, non Hezkuntza Komunitatea osatzen duten eremu guztiak ordezkaturik dauden, eta horrela jarraitzeko apustua egiten dugu.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Gure ikastetxea honako baliabide digitalez hornituta dago:

- Mahai gaineko ordenagailuak: 43
- Ordenagailu eramangarriak: 22
- Ordenagailu mini eramangarriak: 8
- Ordenagailu ultra eramangarriak: 149
- Armairu elektrifikatuak: 7
- Arbel elkarreragilea: 19
- Proiektagailuak 22.
- Panel monitore elkarreragilea: 9

Wifi sarrera puntuak ditugu, ikastola guztian interneterako konexioa izatea ahalbidetzen dutena.

Plataforma eta zerbitzu digitalei dagokionez, ondorengo hauek dira gehien erabiltzen ditugunak: g-suite (gmail, drive, docs, classroom, google calendar...), blinklearning, edelvives, innovamat, navio app...

Zerbitzu horiek guztiak mantentzeko, CAU mantentze zerbitzua dugu eskura. Horrez gain, eskolan ere IKT eta BEA arduradunak dauzkagu.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Gaur egun, gure gizartea are eta digitalizatuago dago. Hortaz, ikastetxeok erantzun behar diegu gizartetik eta lan-merkatutik heltzen zaizkigun eskaerei. Ikastetxeek etorkizuneko hiritarrak ingurune oso digitalizatu batean ondo moldatzeko prestatu behar dituzte.

Horretarako, Tokieder ikastolan A2 titulazioa lortzeko formazioa jaso dugu. Bestalde, irakasleok baliabide digitalak modu eraginkorrean erabiltzeko ikastaro ezberdinak jaso izan ditugu, adibidez; blinklearning, innovamat, google g-suite... Azken urteetan, ikasle zein irakasleek ongizate digitala bermatzeko eta ziberjazarpena ekiditzeko formazioak burutu ditugu ere. Programazioetan baliabide digitalak garrantzia hartzen joan dira azken ikasturte hauetan. Irakasle-liburu digitalak eskura ditugu eta pixkanaka gelak baliabide digitalez hornitzen joan gara. Era berean, hainbat programatan hartzen dugu parte, hala nola: STEAM. 21-22 ikasturtean Arabako Foru Aldundiko lehenengo saria lortu genuen, "Emakume Zientzialariak" gaia ardatz izanik. Hurrengo ikasturteetan zehar, esperientzia honen ildoan jorratzen jarraituko dugu honako hauek erabiliz: Bee-bot, makey-makey, 3D inprimagailuak, mBot2, Smart Cobot, Lupa digitalak, mikroskopia digitalak eta microbit.

Bestetik, azken ikasturtean web orri berria diseinatu dugu (www.tokieder.eus), baita Twitter-eko kontu bat ireki ere.

Hau horrela, plan honen bitartez lortu nahi duguna zera da: ikastetxeko estrategia digitala planifikatzea, Proiektu Digital iraunkor eta dinamiko bat sortzea, ikasle eta irakasleen konpetentzia digitala hobetzea eta hezkuntza-komunitateko estamentu guztien inplikazioa lortzea.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Gure ikastetxearen Proiektu Digitalak zera jasoko du:

- Gaur egungo egoera: autoebaluazioa eta hausnarketaren bidez egoeraren analisia egingo da, zenbait esparrutan (DigCompOrg markoa) ikastetxearen digitalizazio maila zein den zehaztuz.
- Ikastetxeak nora iritsi nahi duen: gaur egungo egoeratik abiatuz, epe ertainerako jomugak eta datorren ikasturterako helburu zehatzak definituko dira.
- Bidea diseinatu: markatu diren helburuak lortzeko jarraibidea zehaztuko da, estrategiak eta ekintzak definituz.
- Plangintzaren etengabeko balorazioa: Proiektu Digitala ikastetxeko proiektu estrategiko iraunkorra izango denez, aldizkako ebaluaketa bat finkatuko da, beharrezkoak diren hobekuntzak gauzatzeko.

Prozesu hau guztia bideratzeko lan-taldea osatuta dago ziklo eta etapa ezberdinetako irakasleekin. Digitalizazio Batzordea izango da proiektu hau aurrera eramango duena, honako hauek partaide dituelarik: zuzendaritzako partaidea, IKT dinamizatzailea eta Premia arduraduna, digitalizazio arduraduna eta bi irakasle.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan helburu metodologiko orokorrak definitzerakoan, ikasleak norberaren identitatea eraikiz eta modu integral batean heziz, haien nortasunaren osagarri eta haien garapen intelektual, fisiko, moral eta emoziozkoari begira heztea aipatzen da. Hori dela eta, ikasleak pertsona "osotzat" hartzeko asmoz, aurrerapen zientifikoak, teknologia berriak, etab. jakinminaz eta jarrera kritikoaz ikustea sustatuko da.

Horrez gain, IUP-ean Metodologiaren inguruko gogoeta eta konpetentzietan oinarritutako ebaluazioa burutuko da eta horren baitan STEAM proiektu bat burutzea ardatza izango da HH4, HH5 eta LH maila guztietan.

Ikastetxeko jarduna gidatzen duen dokumentu nagusi honi jarraituz, ezinbestekoa da Digitalizazio Plan bat edukitzea, epe laburrerako nahiz ertainerako, gure lana planifikatzeko. Epe ertaineko helburuak bi edo hiru urterako finkatuko dira, eta epe laburrekoak urtekoak izango dira, Ikasturteko Planean txertatuta joango direlarik.

Digitalizazio Plana Zuzendaritza Proiektuari lotuta joango da, eta zuzendaritza taldeak bere eperako digitalizazio plangintza bat eratuko du eta urtero ebaluatu eta aztertuko da Ikasturteko Plana eta Memoriaren bidez.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Gure ikastetxearen errealitatea aztertzeko, SELFIE tresna erabili dugu. Honi esker, gure ahulezia zein indarguneak identifikatu ditugu. Ondoren, honen gainean hausnartu eta hauek hobetzeko zenbait helburu finkatu dira.

Jarraian, identifikatu ditugun indargune zein ahulezien inguruan jardungo dugu. Hasteko, lidergoa nahiko ondo baloratu dela esango genuke, bereziki, irakasleen artean. Kolaborazio eta sareen atalean, elkarlana da gehien baloratu dena, beraz, honi eutsi eta bide berdinetik jarraitzea espero dugu.

Azpiegitura eta ekipamendu arloari dagokionez, ikastolak ekipamendu nahikoa duela argi dago, baina zuzendaritzako exijentzia-maila altua denez, ahuleziak aurkitzen ditu atal honetan.

Ondoren, etengabeko prestakuntza profesionalaren arloa aztertu eta nahiko ondo baloratu da. Izan ere, ikastolak behar duen prestakuntzaz koizente gara baina hori partekatzeke modu edo kanalak hobetu beharko genituzke.

Pedagogia, laguntzak eta baliabideak atalari dagokionez, pozik gaude atera diren emaitzekin. Baliabide digitalak helburu zehatz batekin erabiltzen ditugu, ondorioz, emaitzak positiboak dira. Hala ere, aipatzekoa da ingurune birtualak ez daudela guztiz txertatuta ikastolan.

Pedagogia digitalak ikasgelan aplikatzea da gure ahulezia nabarmenetako bat. Baliabide digitalak talde lanetan gutxi erabiltzen dira eta ikasleek elkarlanean gehiago jardun dezaketela argi dago.

Gutxien baloratzen den arloa ebaluazio jarduerak dira. Gutxitan erabiltzen ditugu baliabide digitalak ebaluazioak egiteko. Azkenik, ikasleen kompetentzia digitala dela eta, primerako emaitzak lortu ditugu: portaera seguru zein arduratsua sustatzen dugu ikasleen artean.

Argi dagoena zera da: aipatutako indarguneei eutsi eta identifikatu berri ditugun ahuleziak gainditu behar ditugu. Horretarako, irakasleen konpromezu digitala sustatu eta zehaztuko ditugun helburuak lortzeko elkarlanean jardungo du ikastetxeak.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Ikasle zein irakasleen estrategia digitalaren ezagutza eskasa da.

Bizipenak partekatzeke modu eta kanalak ez dira eraginkorrak.

Ingurune birtualak gutxi erabiltzen dira.

Diziplinarteko proiektuetan baliabide digital gutxi erabiltzen da.

Ebaluazio jarduerak ez daude ia digitalizatuta.

+ Lerro bat gehitu

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Azpiegitura eta interneterako sarbidea ahula da.

+ Lerro bat gehitu

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Ikastetxeko lidergoa ondo baloratuta dago irakasleen artean.

Elkarlana.

Irakaslegoa koiziente gara EPPren beharra zein garrantziaz.

Baliabide digitalen erabilpena geroz eta handiagoa da egunero saioak aurrera eramateko.

Ikasleen behar ezberdinak aintzat hartuz, materialak egokitzen dira.

Konpetentzia digitalaren inguruko portaera seguru eta arduratsua sustatzen da.

+ Lerro bat gehitu

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Ikastetxea ondo hornituta dago gailu digitalei dagokionez.

Irakasle zein zuzendaritza taldeak formakuntzetan parte hartzen du.

+ Lerro bat gehitu

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Aurretik aipatu berri ditugun indarguneen artean, ikastetxeko lidergoa, elkarlana, baliabide digitalen erabilpena, materialaren egokitzapena eta portaera segurua aurki ditzakegu. Hau guztia indartzeko, ikastetxearen hornikuntza digitala zein formazioa dira ditugun aukera onenak. Beraz, ikastetxearen hornikuntza amankomunean jarri eta formazioari eutsiko dio ikastetxeak.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Behin ahuleziak -ezagutza eskasa, ingurune birtualaren erabilpen murrizta eta ebaluzio jardueren digitalizazio eza- detektatuta gure aukera onena formazioarekin jarraitu eta areagotzea litzateke. Jarduera birtualak sortzeko kanalak sortzea proposatuko da baita ere.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Indargune guztiak aintzat hartuz, ikastetxeak duen potentziala sustatu beharko litzateke. Horretarako, ikasturte hasieran mehatxuei aurre egiteko protokoloa sortuko da.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Oraintsu aipatu dugun moduan, ahulezia zein mehatxu gutxi batzuk antzeman ditugu analisi honi esker. Hauei aurre egiteko, indargune zein aukerak berreskuratu eta hauek aprobetxatuko ditugu ikasleen ezagutza digital eskasa gainditzeko, kanal eraginkorrak ezartzeko eta programazio berrietan txertatuta dauden ekintzak aurrera eramateko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua			
Teknologia digitalaren erabilera sustatzeko estrategiak modu sistematikoan praktikan jartzea, koordinaziorako eta adostasunerako.			
Deskriptorea			Epea
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza			2025ko ekaina
Adierazlea	Mota	Helmuga	
LG 1.3. A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP) sartzen ditu irakasle-taldeak eta eskola-kontseiluak onartutako estrategia digitalaren ildo nagusiak.	Bai/Ez	2024ko ekaina	
LG 1.3 A2 Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak ikasleen gaitasun digitalaren garapena zehazten du.	Bai/Ez	2025eko ekaina	
LG 1.3 A3 Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren funtzioak eta zereginak AJAn eta lan-planean jasoko ditu ikastetxearen urteko planean.	Bai/Ez	2024ko ekaina	

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxeak Batzorde Digitalaren eta haren koordinatzailearen funtzioak eta zereginak Urteko Planean jaso.	IUP IPD	Batzorde digitaleko koordinatzailea	2023ko urria	Prozesuan (%40-59)
Irakasle-taldeak eta eskola-kontseiluak adostutako estrategia digitalaren ildo nagusiak urteko planean islatu.	Eskola kontseiluko erabakiak IUP	Batzorde digitaleko koordinatzailea	2024ko urria	Hasita (%1-19)
Erabaki curricularrean ikasleen gaitasun digitalaren garapenaren ibilbidea zehaztu eta hura aurrera eraman.	IUP	Batzorde Digitala	2025 ekaina	Detektatua

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Ikasleen parte hartzea eta motibazioa zabalduko duten metodologia berriak bilatzea eta sormena eta disziplinar tekotasuna sustatzeko estrategia ezartzea.

Deskriptorea	Epea	
II 2.6 Sormena sustatzen da	2025ko ekaina	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.6 A2 Robotikako jarduerak txertatu dira.	Bai/Ez	2025ko ekaina
II 2.6 A3 3D diseinurako jarduerak txertatu dira.	Bai/Ez	2025ko ekaina

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
STEAM proiektuak sistematizatu.	Makey makey, bee-bot, blue-bot, scratch	STEAM arduraduna	2025eko ekaina	Prozesuan (%20-39)
3.zikloak proiektuak aurrera eramateko 3D inpresora txertatu.	3D inprimagailua Irakasleentzako formazioa	STEAM arduraduna	2025eko ekaina	Detektatua

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

GP Garapen profesionala

Helburua		
Ikasturte bukaerako praktika-onak saioak antolatzea non maila bakoitzeko digitalizazio praktika on bat edo bi aurkeztuko diren.		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.4 Agerikoa da EGP eredu sorta zabala dagoela	2024ko ekaina	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.4 A1 Irakasleek ikastetxean parte hartzeko espazioak eta momentuak planifikatu dira, konpetentzia digitala hobetzeko esperientziak eta ezagutza trukatu ahal izateko.	Bai/Ez	2024ko ekaina
GP 1.4 A2 Ikastetxeak antolakundearen ikaskuntza-ingurune bat garatu du. Ingurune horretan, ikastetxean egindako saioak eta prestakuntza-jarduerak biltzen dira, bai eta irakasle-taldeek lan-saioetan garatutako materialak ere.	Bai/Ez	2024ko ekaina

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ekaineko azken asteko klaustro batean maila bakoitzeko irakasleek praktika on bat aurkeztu eta hauek hurrengo ikasturteetan erabiltzeko jaso.	Irakasleen aurkezpena	Mailaka irakasle-taldea	2024ko ekaina	Detektatua

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua			
Sarean eskuragarri dauden askotariko ebaluatze tresna digitalen (errubrikak, portfolioak..) erabilpena ezartzea, ebaluazio sumatiboaz gain ikasleen autoebaluazioa eta koebaluazioa ere sustatuz, ikasleek eskuratzen dituzten ezagutzei eta lortzen duten kompetentzien garapenari buruzko berehalako informazioa jasotzeko.			
Deskriptorea			Epea
EJ 1.2 Ebaluazio batutzailea dibertsifikatzen da			2025eko ekaina
Adierazlea		Mota	Helmuga
EJ 1.2. A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren teknologia digitalak agertzen dira.		Bai/Ez	2025eko ekaina

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Izaera ezberdineko ebaluazio hezigarri prozesuak garatzeko erabiliko diren teknologia digitalak hautatu.	-	Irakasle taldea	2025eko ekaina	Detektatua
Errubrika banku bat sortu, mailaz-maila eta ikasgaiz-ikasgai.	Errubrika bankua	Irakasle taldea	2025eko ekaina	Detektatua
Programazioetan ebaluazioa egiteko hautatutako teknologia digitalak jaso.	Programazioak Hautatutako teknologia digitalen zerrenda	Irakasle taldea	2025eko ekaina	Detektatua

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Curriculum erabakietan ikasleen gaitasun digitala ohituraz bultzatzeko erabakiak hartzea eta jasotzea.

Deskriptorea	Epea	
EC 2.1 Irakasgaietan oinarritutako ikaskuntza beste era batera antolatzen da eredu integratuagoak sortzeko	2024ko ekaina	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.1 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenaren ibilbidea eta hezkuntza-maila bakoitzerako gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak jasotzen ditu.	Bai/Ez	2024ko ekaina

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Erabaki curricularrean ikasleen irteera-profila digitala zehaztu.	Curriculum Hezkuntza Proiektua	Batzorde Digitala	2024ko ekaina	Detektatua
Erabaki curricularrean hezkuntza-maila bakoitzerako gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak definitu.	Curriculum Hezkuntza Proiektua	Batzorde Digitala	2024ko ekaina	Detektatua

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua		
Klaustrokideen kompetentzia digitala hobetzea, Digitalizazio Batzordeko arduradunak laguntza eskainiz eta emanez.		
Deskriptorea	Epea	
EN 3.1 Ezagutza elkarleen bidez trukatzeko konpromisoa agerikoa da	2024ko ekaina	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 3.1 A2 Ikastetxeak gutxienez kompetentzia digitala lantzeko proiektu instituzional batean parte hartu du.	Bai/Ez	2024ko ekaina

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
DIGCOMPEDU formazioetan parte hartu.	Mintegia Moodlegunea	Digitalizazio arduraduna	2024 ekaina	Prozesuan (%20-39)

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Pertsonalak eta ikasleek erabiltzen dituzten teknologiek, edukiek eta zerbitzu digitalen erakundeak berak onartutako eta erabiltzaileei argi eta garbi jakinarazitako erabilera arduratsurako arauak jarraitzea.		
Deskriptorea	Epea	
AZ 2.1 Erabilera arduratsurako arauak daude ezarrita	2024ko ekaina	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.1 A2 Ikastetxeak prestakuntza-saioak (tutoretza-saioak) eta ikasleentzako materialak zehaztu ditu, teknologia digitalak gaizki erabiltzeak dakartzan arriskuak eta lineako inguruneak erabiltzeko portaera-arau onargarriak hobeto ezagutzeko.	Bai/Ez	2024ko ekaina

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Zikloa erabilera arduratsurako arautegia zehaztu eta idatziz jaso.	Digitalak	Irakasle taldea	2024ko ekaina	Detektatua
Arautegia ikasleei aurkeztu eta beraiekin landu.	Arautegia	Tutoreak	2024ko ekaina	Detektatua

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Irakasleek zein ikasleek adituen formazioarekin jarraitzea.

Deskriptorea	Epea	
Garapen profesionala maila guztientzako pertsonalarentzat eskaintzen da.	2024ko ekaina	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikastetxeak hezkuntza komunitatearen eskura jarri ditu zibersegurtasunari, identitate digitalaren tratamendu egokiari eta teknologiaren erabilera osasungarri eta arduratsuari buruzko saioak.	Bai/Ez	2024ko ekaina
Ikastetxeak prestakuntza edo lan saioak antolatzen ditu pertsonalarentzat.	Bai/Ez	2024ko ekaina

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleei zibersegurtasunari, identitate digitalaren tratamendu egokiari eta teknologiaren erabilera osasungarri eta arduratsuari buruzko saioak eskaini aditu baten eskutik.	Kanpo adituak	Zuzendaritza Taldea	2024ko ekaina	Hasita (%1-19)
Pertsonalarentzako prestakuntza edo lan saioak antolatu.	Formazioak	Zuzendaritza Taldea	2024ko ekaina	Hasita (%1-19)

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Teknologia digitalaren erabilera sustatzeko estrategiak modu sistematikoan praktikan jartzea, koordinaziorako eta adostasunerako.	2025ko ekaina	Maila bilera batean hausnartuz	Irakasle eta zuzendaritza taldea		
II	Ikasleen parte hartzea eta motibazioa zabalduko duten metodologia berriak bilatzea eta sormena eta disziplinarrekotasuna sustatzeko estrategia ezartzea.	2025ko ekaina	Aurrera eramandako estrategien kantitatea eta kalitatea aztertuz.	Digitalizazio batzordea		
GP	Ikasturte bukaerako praktika-onak saioak antolatzea non maila bakoitzeko digitalizazio praktika on bat edo bi aurkeztuko diren.	2024ko ekaina	Praktika onak saioaren ostean, aurkeztutakoaz hausnartuz	Irakasle taldea		
EJ	Sarean eskuragarri dauden askotariko ebaluatze tresna digitalen (errubrikak, portfolioak..) erabilpena ezartzea, ebaluazio sumatiboaz gain ikasleen autoebaluazioa eta koebaluazioa ere sustatuz, ikasleek eskuratzen dituzten ezagutzei eta lortzen duten konpetentzien garapenari buruzko berehalako informazioa jasotzeko.	2025eko ekaina	Programazioak egiaztatuz eta hautatutako tresna digitalak balioetsiz.	Irakasle taldea		
EC	Curriculum erabakietan ikasleen gaitasun digitala ohituraz bultzatzeko erabakiak hartzea eta jasotzea.	2024ko ekaina	Hartutako erabakien egokitasuna aztertuz	Batzorde Digitala		
EN	Klaustrokideen konpetentzia digitala hobetzea, Digitalizazio Batzordeko arduradunak laguntza eskainiz eta emanez.	2024ko ekaina	Klaustrokideen konpetentzia digital maila ebaluatuz	DIGCOMPEDU arduraduna		
AZ	Pertsonalak eta ikasleek erabiltzen dituzten teknologiek, edukiek eta zerbitzu digitalek erakundeak berak onartutako eta erabiltzaileei argi eta garbi jakinarazitako erabilera arduraturako arauak jarraitzea.	2024ko ekaina	Gelako erabilera digitala oro har arduratsua den behatuz	Irakasle taldeak		

IB	Irakasleek zein ikasleek adituen formazioarekin jarraitzea.	2024ko ekaina	Formazio saioen eraginkortasuna aztertuz	Digitalizazio batzordea eta Zuzendaritza taldea		
----	---	---------------	--	---	--	--